

Iraunkortasunerako hezkuntza eta metodologia parte-hartzaileak Ikastaroaren edukiak

Ongi etorri iraunkortasunerako hezkuntzari eta metodologia parte-hartzaileei buruzko oinarritzko-ikastaro honetara. Jarraian, prestatu dugun proposamena aurkezten dizugu. Ikastaroak ez du astez asteko egitura, ezta lineala ere, webinarrak nahiko azkar etorriko baitira bata bestearen atzetik (azaroaren 27an, astelehena; azaroaren 29an, asteazkena; eta abenduaren 4an, astelehena), eta elkarren osagarri izango dira. Blokekako egitura proposatzen dizuegu, ikastaroaren hezurdura moduan. Bloque bakoitzak gai bat izango du ardatz, eta ziurtagiria lortze aldera nahitaez irakurri, parte hartu eta/edo ikusi beharreko materialak eta betebeharreko ariketa batzuk. Bloque bakoitzerako ere dokumentu osagarri batzuk proposatzen ditugu, sakondu nahi duzuenontzat. Hona hemen xehetasunak:

1. Blokea: Iraunkortasunerako hezkuntza: ikuspegi ekosozialaren funtsezko kontzeptuak.

- Helburuak:
 - Egungo krisi soziosozialaren testuinguruan kokatzea.
 - Aldaketa globalera egokitu eta gizarte iraunkor bat garatzeko prestatzeko beharrezkoa den hezkuntza motari buruz hausnartzea.
 - Hezkuntza ekosozialaren funtsezko kontzeptu eta elementuak aurkeztea.
 - Ingurumen-hezkuntzatik hezkuntza ekosozialera igarotzeak dakartzan ondorioei buruz hausnartzea.
- Nahitaezko edukiak:
 - Fernández Casadevante, José Luis; Morán, Charo (2022) “Hezkuntza ekosoziala: hondamendiaren pedagogiaren eta alternatibak aurreratzearen artean”, *Hariak. Recreando la educación emancipadora*, 12. zenbakia, 4-12. or.
https://publicaciones.hegoa.ehu.eus/uploads/pdfs/630/Hariak_12_eusk_web2.pdf?1659098436
 - Gutiérrez Bastida, José Manuel (2021), “LOMLOE legea vs konpetentzia ekosoziala”, *Eskola Publikoa*, 52. Zenbakia. 37-42 or. Eskuragarri
<https://steilas.eus/wp-content/uploads/2021/03/Eskola-Publikoa-52.pdf>
 - Diego, Sara; Otano, Guillermo (2022) *Amazonia gara. Amazonia defendatzeko gako ekofeministak*. Alboan. Irakurri 5-8 y 21-28 orrialdeak; Eskuragarri
https://www.alboan.org/sites/default/files/informesomos_amazonia_cas.pdf
 - Setem-HegoHaizea (2021) Elikadura baino gehiago: ekofeminismoa Yayo Herrero-rekin eta agroekologia Urduñan
<https://www.youtube.com/watch?v=LFIFoxEEjiQ> (Bideoa. Ikusi 4'28'' arte).

- Eduki osagarriak:

- Gutiérrez Bastida, José Manuel (2019) “Antropoceno: tiempo para la ética ecosocial y la educación ecociudadana” *RES, Revista de Educación Social* 28, Enero-Junio. Disponible en https://eduso.net/res/wp-content/uploads/2020/06/antropocebo_res_28.pdf (Gazteleraz)
- Guarango cine y vídeos (2013) *¿Qué es el ecofeminismo?: entrevista a Yayo Herrero*: <https://youtu.be/5vBvmkD-yvg> (Vídeo 5'35'') (Gazteleraz)

- Zeregina:

- Foroan zure burua aurkeztea, ikastaroan izena emateko arrazoiak, ikastaroari buruzko espektatibak eta zure ezagutzatik eta esperientziaz egin ditzakezun ekarpenak adieraziz (gogoratu: ez dago ekarpen txirik). Zeregin hau betetzeko iradokitako data: azaroak 28.
- Partekatu zure gogoeta honako galderei jarraituz:
 - *Zer ezaugarri ditu hezkuntza ekosozialak?*
 - *Zertan litzateke desberdina (izatekotan) ingurumen-hezkuntza deitu izan dugunaren aldean?*

300 eta 500 hitz bitarteko luzera espero da, gutxi gorabehera.
Entregatzeko iradokitako data: azaroaren 28a.

2. Blokea: Hezkuntza ekosoziala gure hezkuntza-sisteman. Aukerak LOMLOEren esparruan.

- Helburuak:

- Hezkuntza ekosozial baten ezaugarriak partekatzea.
- Zenbait gako eta adibide ematea, ikastetxean ikuspegi ekosoziala duen hezkuntza zeharkatzeko moduari buruz.
- LOMLOEak hezkuntza ekosoziala txertatzeko ematen dituen aukerak.
- Beharrak, aukerak, esperientziak eta baliabideak EAEko hezkuntza ekosozial baterako.

- Nahitaezko edukiak:

- 11/27ko Webinarra: Luis González, FUHEM.
- 12/04ko Webinarra: Jose Manuel Gutiérrez Bastida, Maisua.
- FUHEM: elaboración de situaciones de aprendizaje.

- Eduki osagarriak:

- FUHEM: “Programar con mirada ecosocial en la LOMLOE”, blog tiempo de actuar <https://tiempodeactuar.es/blog/programar-con-mirada-ecosocial-en-la-lomloe/>
- Teachers For Future Spain: “Currículo para una educación ecosocial frente a la emergencia climática”, <https://teachersforfuturespain.org/propuesta-curriculo/>
- Jose Manuel Gutierrez Bastida: Blog Construyendo Educación Ecosocial <https://educacionecosocial.com/>
- FUHEM: Blog tiempo de actuar: recursos didácticos para convivir y perdurar. <https://tiempodeactuar.es/>

- Tarea:

- Partekatu honako galderei erantzunez egiten duzun gogoeta:
 - *Webinarreko ponentzietan eta multzo honetako edukietan aurkeztutako elementu, gako, esperientzia eta abarretatik, zeintzuk dira baliagarriak zure hezkuntza-lanerako?*
 - *Zure ustez, posible al da partekatutako proposamen batzuk oinarri hartuta zure lanean ikuspegi ekosoziala txertatu edota sakontzea? Zein izango lirateke hori egiteko zailtasunak? Eta aukerak?*

300 eta 500 hitz bitarteko luzera espero da, gutxi gorabehera. Entregatzeko iradokitako data: abenduak 10.

3. Blokea: Hezkuntza ekosozialaren erronkak eta proposamenak Amazoniatik.

- Helburuak:

- Amazoniako lurraldeari, haren aniztasun biologiko eta kulturalari, planeta osoarentzat duen garrantziari eta aurre egin beharreko mehatxuei buruzko ikuspegi orokorra ematea.
- Hezkuntza Integrala eta Panamazonia Fe y Alegriaren ekimenaren ezaugarri nagusiak ezagutzera ematea. Panamazoniako pertsona eta komunitate ahulenei hezkuntzarako eskubidea ematen dien Herri Hezkuntza proposamena da.
- Amazoniatik sortu eta Amazoniarako diren hezkuntza-proposamen zehatzak ezagutzera ematea, baita hainbat lurralde desberdinetan garatzen dituzten esperientziak ere.

- Nahitaezko edukiak:

- 11/29ko webinarra: Ekologia Integrala eta Panamazonia ekimena (gazteleraz)
- Fundación Gaia Amazonas (2017) *Por qué el Amazonas es tan importante*, <https://www.youtube.com/watch?v=mO1bf8iTMl&t=67s> (bideoa 8'25'').
(Gazteleraz)
- Diego, Sara; Otano, Guillermo (2022) *Amazonia gara. Amazonia defendatzeko gako ekofeministak*. Alboan. Irakurri 8-20 orrialdeak;

Eskuragarri

https://www.alboan.org/sites/default/files/informesomos_amazonia_cas.pdf

- Iniciativa Federativa Ecología Integral y Panamazonía, Fe y Alegría (2021) *Guía general del docente: Cuidado y Defensa de la Naturaleza*, disponible en <https://d3pugrm67vf9n7.cloudfront.net/wp-content/uploads/2021/07/13211420/1-Gu%C3%ADa-General-del-Docente.pdf> (gazteleraz)
- Iniciativa Federativa Ecología Integral y Panamazonía, Fe y Alegría (Febrero 2022): *Voces y aprendizajes de la Amazonía*, Boletín nº 9 y 10; disponible en https://ecologia.feyalegria.org/wp-content/uploads/2022/04/05-07-04-22-fya-boletin-9-y-10_c.pdf (gazteleraz)
- Iniciativa Federativa Ecología Integral y Panamazonía, Fe y Alegría (Febrero 2022): *Voces y aprendizajes de la Amazonía*, Boletín nº 11 y 12; disponible en https://ecologia.feyalegria.org/wp-content/uploads/2022/04/06-07-04-22-fya-boletin-11-y-12_c.pdf (gazteleraz)
- Eduki osagarriak:
 - González, Saray; González, Álvaro (ALBOAN), González, Luis (FUHEM) (2022) *Gizarte eta ingurumen arloko justizia lantzeko ibilbidea*. Eskuragarri <https://www.edukalboan.org/eu/jarduera/gizarte-eta-ingurumen-arloko-justizia-lantzeko-ibilbidea> (Hezkuntza ez formalerako proposamena)
 - *Ez gara jaitsiko!* <https://www.somos-amazonia.org/eus/ez-gara-jaitsiko/> (HH eta LHko lehen ziklorako proposamena).
 - Pulecio Yate, Jorge Reinel (2022) *Amazonía viva. Contexto y pronóstico socioambiental para la acción colectiva*, disponible en https://www.alboan.org/sites/default/files/amazonia_viva_-_jorge_pulecio_-_alboan.pdf (Gazteleraz)
 - Iniciativa Federativa Ecología Integral y Panamazonía, Fe y Alegría (2021) *Guías pedagógicas para los distintos niveles educativos*, disponibles en <https://ecologia.feyalegria.org/guias-pedagogicas/> (Gazteleraz)
- Zeregina:
 - Partekatu honako galderei erantzunez egiten duzun gogoeta:
 - *Zein elementu nabarmenduko zenituzke Ekologia Integrala eta Panamazonia proposamenetik (webinar aurkezpena, proposamen orokorra eta esperientziak)?*
 - *Ba al dago bereziki interpelatzen zaituen eta zure hezkuntza-zereginean nolabait txertatu nahiko zenukeen horietako elementuren bat?*
 - *Zeintzuk lirateke horiek txertatzeko zailtasunak eta aukerak?*
 - *Eta beste ordena batean: Amazonia agertzen al da inoiz zure hezkuntza-zereginean?*
 - *Animatuko al zinateke Amazoniari buruzko proposamenak txertatzera? Nola?*

300 eta 500 hitz bitarteko luzera espero da, gutxi gorabehera.
Entregatzeko iradokitako data: abenduak 10.

4. Blokea: Esperientziak elkarriketan.

- Helburuak:
 - Talde honetako pertsonen esperientziak partekatzea.
 - Gure hezkuntza proposamenak ikuspuntu ekosozial batetik berritzeko inspirazio-iturri izan diren ikastaroko edukiak partekatzea.
 - Gurea ez den beste errealitate batzuetatik aurkeztu diren eduki eta esperientzietatik gehien harritu eta ekarpen handiena egin diguten ideiak eta elementuak nabarmentzea.
 - Gure bide ekosozialari bidea irekitzea.
- Inspiraziorako edukiak:
 - Naturaren defendatzaileen testigantzak: <https://www.somos-amazonia.org/eus/erakusketa/>
 - Gure etxe komuneko defendatzaileekin topaketa (erreproduzio-zerrenda): https://www.youtube.com/watch?v=KEi2sK-GFVc&list=PL2x-x8nz8k30SR_ow3oOSEJwTvgLDosxs (azpтитuluak euskaraz).
- Zeregina:
 - Ikastaro honetan parte hartzen dugun pertsona bakoitza naturaren eta bizitzaren defendatzaile gara eta izan nahi dugu hezkuntzatik (zuok hauta dezakezue hura definitzeko beste modu bat, adibidez, iraunkortasunerako hezkuntza baten aldeko konpromisoa duten irakasleak, edo gustuko duzuen eta gehiago identifikatzen zaituzten beste modu bat). Proposatzen dizuegun lanaren helburua da, erakutsi dizkizuegun eduki inspiratzaileak agertzen diren defendatzaileek egiten duten bezala, taldearekin partekatu ahal izatea:
 - Nortzuk zarete (zuen hasierako aurkezpenaz harago), zergatik zaudeten hezkuntzan sartuta eta inplikaturik, eta, bereziki, iraunkortasunerako hezkuntzarekin lotutako gaietan, zerk bultzatzen zaituen bide horretan sakondu nahi izatera.
 - Zein elementu izan dira berriak zuentzat ikasturte honetan, eta zein errepikatzen dira? Zein izango litzateke ikastaroak ekarri dizuen berrikuntza, zein elementu diren jarraitutasunekoak, eta zerbait sentitzen baduzue lasta bezala, askatu nahi duzuen zerbait bezala.
 - Zein esperientzia eta bizipenetan sentitu zarete identifikatuta, eta baten bat oso desberdina edo urrun suertatu zaizuen. Zer uste duzue komunean duzuela talde honetan, eta zer elementuk bereizten zaituzte?
 - Nola berrezarri dezakezue zuen hezkuntza-lana: elementu zehatzak, zuen hezkuntza-lanean txertatzeko eta probatzeko konpromisoa hartzen duzuenak, eta nola egin asmo duzuen.

7050 eta 1000 eta hitz bitarteko luzera espero da, gutxi gorabehera.
Entregatzeko azken eguna: abenduak 20.